

NAFARROAKO PARLAMENTUKO MAHAIARI

Dokumentu hau sinatzen dugun taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako **MOZIO** hau aurkezten dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Baztan-Bidasoa-Urdazubi-Zugarramurdi eskualdeko egungo lanbide heziketak ez ditu alor horretako beharrak asetzan, arrazoi desberdinak direla medio. Batetik, dituen azpiegitura fisikoak egoera tamalgarrian daudelako: eraikinak ez dituzte baldintzak betetzen (teilatu erorketak, instalazioak eta baliabideak zaharkituak eta leku eskasia dago), ikastetxeak sakabanatuak daude (Elizondo, Lekaroz, Bera) eta eskaintza akademikoa ez da egungo beharretara egokitua. Bertzetik, ez dago inolako egituraketarik lanbide prestakuntzan eta enpleguan ardurak dituzten agente ezberdinen artean. Doneztebeko Enplegu Agentziak eragin eskasa dauka, empresa elkarterik ez dago eta eskualdean ordezkaritza duten sindikatu nagusiek ez dute baliabide ekonomikorik prestakuntza eskaintzeko. Guzti honek, eragiten du lanbide prestakuntza arautuan gabezi larriak izatea eta prestakuntza ez arautua hutsaren hurrengoa izatea.

Azkeneko hamarkadetan, eskualdeko lanbide heziketak ez du administrazioen arretarik jaso ez eta inbertsiorik ere. Baztan-Bidasoa-Urdazubi-Zugarramurdi eskualdeko lanbide heziketa beharrak bermatzeko ezinbertzeko jotzen dugu Nafarroako Gobernuaren implikazio irmoa. Hala, eskatzen diogu ekimen honen alde egin dezala eta bere gain har dezala proiektua errealtitate bihurtzeko ardura. Aipatu, jadanik eskualdeko udaletxe guztiok aho batez atxikimendua emana diogula Lanbide Heziketako ikastetxe berri bat eraikitzeko proiektuari, jakin badakigulako eskualdearen garapen sozial eta ekonomikoan garrantzi handiko azpiegitura izanen dela. Uste dugulako ikastetxe berria izanen dela lanbide prestakuntzan eta enpleguan jarduten duten agente guztiengandik erreferente nagusia.

Arrazoi hauek ikusita, Nafarroako Parlamentuak honako hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

- 1) Lanbide Heziketa eta enplegu politikak modu bateratuan uztartzea eta behar diren neurriak implementatzea.**
- 2) Lanbide Heziketako ikastetxe integratu berri bat eraikitzea eskualdeko erdigunean.**

- 3) Lanbide Heziketako ikastetxe berriak eskualdeko errealitate sozioekonomikoa kontuan izatea, bertako beharretara egokitzen den kalitatezko prestakuntza eskainiz.**
- 4) Lanbide Heziketako ikastetxe berriak euskarazko eskaintza bermatzea, inguruko herrietako ezaugarri eta behar soziolinguistikoak kontuan hartuz.**

A LA MESA DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

Los grupos firmantes de este documento, al amparo de lo establecido en el Reglamento de la Cámara, presentamos la siguiente **MOCIÓN**, para su debate y votación por el Pleno.

La formación profesional que se imparte a día de hoy en la comarca de Baztan-Bidasoa-Urdax-Zugarramurdi no satisface, por distintas razones, las necesidades existentes. Por un lado, las infraestructuras físicas con las que cuenta se encuentran en una situación lamentable: los edificios no cumplen las condiciones necesarias (hundimientos en los tejados, instalaciones y medios anticuados, y falta de espacio); los centros se encuentran dispersos (Elizondo, Lekaroz, Bera), y la oferta académica no se adecúa a las necesidades actuales. Por otro lado, no existe ninguna estructuración entre los distintos agentes que tienen responsabilidades en los ámbitos de la formación profesional y del empleo. La Agencia de Empleo de Santesteban tiene una escasa incidencia, no existe ninguna asociación de empresas y los principales sindicatos que cuentan con representación en la comarca no cuentan con medios económicos para ofertar formación. Todo ello provoca que existan graves carencias en la formación profesional reglada y que la formación profesional no reglada resulte prácticamente inexistente.

En las últimas décadas, las administraciones no han atendido a la Formación Profesional de esta comarca, y no se ha producido ninguna inversión en la misma. Sin embargo, consideramos imprescindible la firme implicación del Gobierno de Navarra para garantizar las necesidades de Formación Profesional de la comarca de Baztan-Bidasoa-Urdax-Zugarramurdi. Por ello, le solicitamos que apueste por esta iniciativa y que asuma la responsabilidad de hacer realidad este proyecto. Hemos de decir que todos los ayuntamientos de la zona nos hemos mostrado ya unánimemente favorables al proyecto de construcción de un nuevo centro de Formación Profesional, puesto que somos conscientes de que resultará una infraestructura de gran importancia para el desarrollo social y económico de la comarca. Creemos que el nuevo centro será el

referente principal de todos los agentes que trabajan en el ámbito de la Formación Profesional y el empleo en la zona.

Por todo ello, el Parlamento de Navarra insta al Gobierno de Navarra a:

- 1) Que aborde conjuntamente la Formación Profesional y las políticas de empleo e implemente las medidas necesarias.**
- 2) Que construya un nuevo centro integrado de Formación Profesional en un emplazamiento céntrico de la comarca.**
- 3) Que el nuevo centro de Formación Profesional tenga en cuenta la realidad socioeconómica de la comarca y ofrezca una formación de calidad adaptada a las necesidades locales.**
- 4) Que el nuevo centro de Formación Profesional garantice la oferta en euskera, teniendo en cuenta las características y las necesidades sociolingüísticas de las poblaciones de la zona.**

En Pamplona-Iruña, a 8 de junio de 2016

GERON BAI
M. Belandier
Podemos - Akel dugu
JS

EH BILDU
Ainara Arregi
IZQUIERDA-EKIALDE
JL